

## Saharara bidaltzeko elikagaien bilketa abian da Lasarte-Orian

Jakiak urtarrilaren 20ra bitartean jasoko dira ikastetxe eta supermerkatuetan

Lasarte-Oriako Sahara Herriaren Lagunak taldeak aurten ere, Euskal Karabana-rako elikagai bilketa jarri du martxan. Urtarrilaren 20ra arte, Lasarte-Oriako eta Añorgako ikastetxeetan eta herriko supermerkatu guztitan elikagaiak biltzeko guneak egongo dira. Hauetan, arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak bildu nahi ditu elkarteak Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko.

Txema Benito elkarteak kideak, Sahal Hamidaoui Lasarte-Orian bizi den sahararra eta Pablo Barrio alkateak agerraldia egin zuten ostegun eguerdian elkartzasun kanpaina aurkezteko. Dagoeneko aurten zortzigarren urtez bidaliko da karabana Saharako herriak pairatzen duen elikagai eskasia nolabait arintzen laguntzeko helburuarekin, Txema Benitok jakinarazi zuenez: "aurreikuspenen arabera ACNUR-en bitartez 80.000 pertsona elikatzeko janaria jasotzen dute kanpamentuetan baina egun hauetan 200.000 biztanle inguru dira, bertan lan egiten duten elkarteetan datuen arabera, eta beharrezkoa dute laguntza".

### Elkartasunerako deia

Euskal karabana otsaila bukaeran abiatuko da eta behin Tindoufera iritsi eta gero, Saharar Ilargi Erdi Gorria arduratuko da elikagaiak kudeatu eta banatzeaz.

Bestalde, Lasarte-Oriako udalaren izenean Pablo Barrio alkateak horrelako ekimenek duten garrantzia azpi-



Pablo Barrio alkatea, Txema Benito herriko Sahara Herriaren Lagunak taldekoa eta Sahal Hamidaoui Lasarte-Orian bizi den sahararra.

marratu zuen eta herritarrak ahal duten neurrian kanpainarekin bat egitera animatu nahi izan zituen.

Herriko gunez gain, otsailaren 4ean egun osoz Sahara Herriaren Lagunak taldekoek Urbil merkatal gunean bilduko dituzte elikagaiak. Iaz gutira bi tona elikagai bildu zen Lasarte-Orian eta aurten ere, krisia medio, kopuru horretara iristea da elkartearen helburua. Euskaditik 400 tona inguru bidali izan dira aurreko urteetan Saharara.

Ekimen honetan parte hartzeko beste modu bat diru laguntza ematea da, 3035 0080 94 0800054177 kontu korrontea zabaldu du taldeak dirua eman nahi dutenek laguntzeko aukera izan dezaten. Bildutako diruarekin bes-



Supermerkatuen sarreran jarrita daude elikagaiak jasotzeko erosketeta-orga.

teak beste, Euskal Karabana elikagaiak garraiatzeko beharrezkoak diren bigarren esku-kamioiak erosiko dira. Honetarako bideratuko da ere

zenbait udaletzek emandako diru laguntza: "kamioiak han geratuko dira Sahararren Garraio Ministerioak erabil ditzan". •



### Ikuskizun handia Zero Sette-ren 25. urteurrenean

Zero Sette Lasarte-Oriako akordeoi orkestrak zilarrezko urteurrena betetzen du, 25 urte, 1987ko urtarrilak 10ean sortu zutenetik eta ikuskizun handia antolatu du Kultur-etxean bihar larunbata 19:30etan. Egun batean agortu ziren jaialdia ikusteko gonbidapenak. Herriko hainbat dantza taldeekin batera emanaldi polit eta gustagarria eskainiko du Orkestrak. **4. orrialdea**

### POLITIKA /3

Parte hartzea eta hondakinen bilketa, 2012ko lehen udal batzarrean

### GIZARTEA /5

Donostiako museo eta bitxikeriak ezagutzeko aukera Oinatzen eskutik

### KIROLA /6

Eneritz Busto atleta hirugarren izan da Euskadiko txapelketan

**cannes**

Donde las estrellas son ellos

**Txakurrentzako ileapaindegia**

**Txakur eta katuen denda**

TXAKUR ETA KATUENTZAKO JANARIA  
Marka hauek erostean %15eko beherapena



Deskontuak  
beste hainbat produktutan



Ez ezazu ahaztu.  
Gogoratu zaitetz berataz



Green enparantza 2 behea (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610  
Tel.: 943 576313 • info@canneslasarte.com • www.canneslasarte.com





# Zero Settek herriko taldeen babesarekin ospatuko du zilarrezko urtebetetzea

■ Jose Antonio Mercero sortu zuen akordeoi orkestra duela 25 urte 1987ko urtarrilaren 10ean eta Elias Goikuriak zuzentzen du 1990etik ■ Jaialdirako gonbidapenak dagoeneko agortu dira

Zero Sette herriko akordeoi orkestrak zilarrezko ezteiak betetzen ditu aurreten eta hauek ospatzeko emanaldi handi antolatu du Manuel Lekuona Kultur-etxean. Jaialdia bihar izango da 19:30etatik aurrera baina bertara joateko gonbidapenak aspaldi agortu ziren. Kultur-etxe-ko lehiatilan jarri ziren egunean bertan. Taldearentzat pozgarria izan da jasotako babes eta horregatik emanaldi polit eta gustagarria eskaini nahi du.



Zero Setteko Andima Egaña eta Xabier Gonzalez Boris Nogales udal ordezkariarekin batera azteazkenean egindako Jaialdiaren aurkezpenean.

## Maidar AZURMENDI

Lasarte-Oriako Zero Sette akordeoi orkestrak 25 urte bete ditu urtarrilaren 10ean eta urtebetetzea behar bezala ospatzeko, jaialdi handia prestatu dute bihar larunbaterako Manuel Lekuona kultur-etxean 19:30etatik aurrera.

Jaialdian herriko hainbat talderen laguntza izango du orkestrak: Alboka abesbatza, Erketz euskal dantza taldea, Semblate Andaluz elkarte Zambra taldea, Lasarte-Oriako danborradako kideak, herriko Musika Eskolako Andrea eta Naroa akordeoiariak eta Amaia Gonzalez eta honen dantza eskolako ikasleak izango dira herriko orkestrarekin batera ikuskizun berezia eskaintzen.

Zero Sette akordeoi orkestra 1987. urtean jaio zen Jose Antonio Mercero gidatzen zuen akademiaren baitan. Mercero berak sortu zuen bere ikasle ziren zenbait gazterekin. 1987ko urtarrilaren 10ean egin zuen debuta Zero Sette Villabonan eskaintako kontzertuan. Lasarte-Oriaren berriz, lehen kontzertu handia Tedoso zineman, egun kultur-etxean, egin zuen orkestrak 1989ko azaroan. Handik gutxira, Jose Antonio Mercero taldearen zuzendaritzan herriko gazte bati pasa zion, egun oraindik zuzendaria den Elias Goikuriari hain zuzen.

Urte guzti hauetako ibilbidea ez da beti erraza izan. Xabier Gonzalez Zero Setteko



Zero Sette Torrelavegako Akordeoi Txapelketan lehen saria eskuratutako hiru urtean. Irudian, 2002. urtean.

presidentek jaialdiaren aurkezpenean azaldu bezala "garai on edo oparoetan erraza izan da aurrera egitea baina une zailak ere egon dira, oztopo asko eta hauei buelta emateko gaitasuna izan du Zero Settek".

### Oztopoak oztopo, aurrera

Hasieran esaterako orkestrak kide asko zituen, baina urteak aurrera joan ahala, jendeak hau utzi eta askotan berregituratu behar izan da taldea bera "akordeoiari diogun maitasunagatik egin dugu zalantzarik gabe". Egun 22 kide osatzen dute Zero Sette "baina 19 izatera iritsi ginen eta askoz gehiago ere bai, batez ere

hasierako urteetan".

Urtetako lan onaren adibide dira lortutako sari guztiak, besteak beste, 1992. urtean Madrilgo "Reina Sofia" akordeoi txapelketako lehen saria jaso zuen Zero Sette, edota Torrelavegako Nazioarteko Akordeoi Txapelketan hiru urtetan eskuratutakoak.

### Krisiari aurre

Orain krisia dela eta ez dira kontzertu asko programatzen eta orkestra bera mugitzeko ere dirua behar denez, ez da lehen bezain erraza txapelketa guztietan parte hartzea "dirua behar da bidaiak egiteko baina egoera honi ere buelta emango diogu".

2012ko helburua urteurren behar bezala ospatzea da Zero Setterentzat eta ez da biharko antolatutakoa ekintza berezi bakarra izango. Urtean zehar Andima Egañak azaldu zuenez, beste bi ekimen egin nahi dituzte behintzat baina "guztiz itxi gabe daudenez oraindik ez dugu hauen berri emango. Politak izango dira eta herrian egingo direla aurreratu dezakegu soilik".

### Zero Sette aitzindari

25 urtetan asko izan dira eskaintako kontzertuak eta Boris Nogales zinegotziak aurkezpenean gogoratu bezala, "Lasarte-Oriaren izena Europaz zabaldu du herriko

taldeak." Bizipen interesgarriak ere izan ditu orkestrak horien artean apagarriak Italian zeudela Joan Pablo II. Aita Santuarekin egoteko aukera izan zutenekoa edota Donostiako Artzain Onaren katedralean eurek egin zutela lehen akordeoi kontzertua.

Bestalde, herriko taldeekin elkarlanean aritzeko prestutasuna, "herrian egin diren festetan beti parte hartzeko prest izan dira" azpimarratu zuen udal ordezkariak. Hau dela eta, biharkoan herriko beste taldeak biltzea lan erraza izan da Zero Setterentzat.

### Mercerori omenaldia

Jaialdian Zero Setteren sortzaile eta lehen zuzendaria izan zenari omenaldi txiki bat egingo diote. Jose Antonio Mercero oroienez Beethovenen "5. Sinfonia" eskainiko dute "pieza klasiko bat hautatu dugu Jose Antoniok klasikoak bereziki maite zituelako". Gainera honakoa izango da orkestrak bakarka joko duen pieza bakarra, "prestatutako beste guztietan kolaborazio bereziak izango ditugulako".

Jaialdian herriko zein kanpotik etorritako lagun askoren babes jasotzea espero dute taldekideek eta gonbidapenak kultur-etxe-ko lehiatilan jarritako egunean bertan bukatu izanak bereziki poztu ditu. Larunbatean urduritasunari aurre egin eta jendearen gustuko izango den ikuskizuna eskaintzea da Zero Setteren nahia. •

# Donostiaren historia ezagutzeko aukera

■ Oinatz taldeak hiriburuko Untzi museoa eta Historiaren etxea bisitatuko ditu 2012. urteko lehenengo irteeran ■ Urtean zehar hainbat txango eta irteera antolatzeko asmoa du taldeak

Euskal Herriko hainbat txoko bisitatu dituzte Oinatzeko lagunek hiru urte hauetan. Izan ere, argi du taldeak, gure herrian bertan ditugun bazter zoragarriak ez ditugula behar bezala ezagutzen. Horregatik, Gasteizen, Leitza-rango bailaran, Donibane Garazi aldean... lekuan lekuko bitxikerien berri izan dute eta besteak beste, kultura, natura, politika, historia eta giza harremanak ezagutu dituzte. Urtarrilaren 22an, igandean, Donostiaren txanda izango da. Gipuzkoako hiriburuaren kultur historia ezagutu dute taldeko kide eta nahi duten herritarrek.

Nerea EIZAGIRRE

**S**an Sebastian eguna ospatzen da hurrengo ostiralean. Egun honetan Donostiako kaleak danbor jolez betetzen da. Baina ezagutzen al dugu ohitura hori nondik datorren? Donostia gertu dugun hiria da, baina haren historiako pasarteak ezagutzen al ditugu?

Galdera hauek erantzuteko asmoarekin, Oinatz taldeak urtarrilaren 22an, Donostiara antolatu du irteera, 2012 urteko lehenengoa.

## Gaztelua eta harresia

Taldeko kideek jakin arazi dutenez, hitzordua goizeko 8:45etan, izango da tren geltokian.

Amara auzotik Alde zaharretatik abiatuko dira, lehen hiri harresitua zen eremura.

Urgull mendia, esate bate-rako, historian zehar Donostiak jasan dituen gerra ezberdinen eta hainbat gora-beheren lekuko izan da.

1150 urtean, Antso Handia Nafarroako erregeak Urgull mendiaren gailurrean defentsarako talaia eta hiriaren inguruko lehendabiziko hesia eraiki zituen.

Nahiz eta hainbat aldaketa eta guda jasan izan, Urgull mendiko gotorleku eta egitura askok gaur egunera arte iraun

dute. Horietako bat Mota gaztelua da.

## Donostiari Begira

Egun, Historiaren etxea dago bertan eta hau izango da Oinatz taldeak bisitatuko duen lekuetako bat.

Honetan, "Donostiari begira" erakusketa dago eta Gipuzkoako hiriburuaren historian zehar ibilbidea egin ahalduko da taldeak: sortu zenetik, Zabalgunea egin eta Donostia uda garaiko erreferentzia bihurtu arte.

Baina gertakari historiko nabarmenenak azpimarratzeaz gain, bilakaera ekonomiko, urbanistikoa eta soziala; eta bere jaiak eta tradizioak aztertzen dira erakusketan.

## Arrantza

Ibilbide historikoa egin eta gero, Donostiako hirian garrantzia handia izan zuen jarduera ekonomikoari buruz, arrantzari buruz, gehiago jakiteko Oinatz taldeak Untzi museoa bisitatuko du.

Untzi museoa XVIII. mendeko dorretxean dago kokatua. XIX. mendean erdialdera arte portu inguruan harresitik kanpo zegoen eraikin bakarra zen.

1813an hiria erre eta suntsitu zutelarik, dorretxea Donostiako Kontsulatuaren eta San Pedroko Nabigatzaileen



Donostia oso gertu dugu, baina Oinatz taldeak hiriburuko historia eta bitxikeriak ezagutzeko aukera emango du urtarrilaren 22an.

Kofradiaren egoitza ofizial bihurtu zen.

Bertan, "Baleazaleak" erakusketa dago ikusgai. Aintzina eta gaur egungo balearen arrantza ezagutzeko aukera ematen du erakusketak eta bereziki, euskaldunek jardura honetan izan duten parte-hartzea nabaritzen da.

## Elizaren eragina

Honetaz gain, elizak gure herrialdean mendeetan izan duen eragina handia izan da.

Donostian egon ziren eliza eta komentu kopuru handia izan zen. Santa Maria Basilika eta San Bizente elizak erlijioaren indarraren erakusle dira, baita Donostian izan diren arkitektura mota ezberdinen ere. Hauek ere bisitatuko dituzte Oinatzeko lagunek.

Santa Maria eliza XVIII. mendeko obra barroko ikusgarria da. Basilika 1743 eta 1774 artean eraiki zuten, eremu bera hartzen zuen aurreko tenplu baten oinaren

gainean. Eta batez ere, Caracaseko Real Konpainia Gipuzkoarrak finantzatu zuen.

Basilikan nabarmentzekoak dira ukitu churriguereskoa duen aurrealdea, hiriko zaindaria den San Sebastian martiriaren eskultura eta Koruko Ama Birjinari eskainitako erretaula nagusia.

Bitxikeri bezala, ate nagusiak lerro zuzenean bat egiten du Artzaïn Onaren Katedralaren sarrerarekin.

San Bizente elizari dagokionez, bertan zegoen lehenengo elizak santu hau babesle ez zuela gutxiak dakite. Izan ere, San Salbador eliza zen. XII. mendean azken urteetan eraiki zen eta Santa Maria basilikaren menpe egon zen 1544. urtera arte.

Gaur egungo itxura 1489 eta 1574 urte artean egin zen berrebaikuntzari dagokio eta gotiko berantiar estilokoa da. Hala ere, ongi begiratu gero bitxikeri batekin egiten da

topo, iparraldeko horma amaitu gabe dago.

## Bazkariko txartela

Antzeko pasadizo gehiago edo Donostiako historian murgildu nahi duten herritarrek Oinatz taldearekin dute aukera.

Gainera, bazkaltzen gertatzeko aukera izango du nahi duenak. Bazkariak 13 euro balio ditu eta hau dastatu ahal izateko Ttakun kultur elkartearen eskuragarri izango den txartela hartu beharko dute aurretik.

## Beste irteerak

Bestalde, urte honetan Oinatz taldeak hainbat irteera egitea aurreikusten du, hala nola, Zumaia itsasotik flyschak ikustera, Bertizko jaurreirra, Debagoiena edo Bilbo eta Meatzerrik

Eta iaiz herrian izan zuten arrakasta ikusiaz berriro ere "Lasarte-Oriako mugak" eta "Lasarte-Oriako zuhaitzak" txangoak antolatzeko asmoa agertu du taldeak. •



TXOTX! IREKIERA  
URTARRILAK 14a  
LARUNBATA GAUEAN

DASTA EZAZUE  
SAGARDOTEGIKO MENUA  
OSATZEN DUTEN  
BOST PINTXO ETA TXOTXA

5 €

**Araeta**  
JATETXEA

Gainera txotx garairako sagardotegi menurako deskontuak lortuko dituzu !

Berridi bidea 22 • 20160 ZUBIETA • Tel.: 943 362049 • Fax: 943 366073  
www.araeta.com



Egunero

**Erakusketa**

NAROA ARABITORRE artistaren MARGOEN ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **urtarrila osoan zehar.**

Ostirala, 13

**Kontzertua**

60 eta 70 hamarkadetako rock, country eta funka EPI & BLUES BAND taldearen eskutik. **ABEND KAFE-ANTZOKIAN, 00:00etan.**

Larunbata, 14

**Kontzertua**

ZERO SETTEREN 25. URTEURRENA ospatzeko emanaldi berezia. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:30ean. Sarrera doan.**



Igandea, 15

**Zinea**

HAURRENTZAKO ZINEA atalaren barruan, "LA GRAN AVENTURA DE WINTER EL DELFIN". MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera 3,40 euro.**

**Medianoche en Paris** filma ikusteko aukera berria

Igandean hasiko den HELDUENTZAKO ZINEA atalaren barruan, Woody Allen zuzendariaren "MEDIANOCH EN PARIS" filma ikusi ahalko da. Ipameriketako idazle bohemioa, bere emaztegaia eta honen gurasoak Parisera doaz. Hiriko kaleetatik zehar doan bitartean, 20. hamarkadan dagoela amesten du eta gauerdian, beste unibertso batera iristen da.

**IGANDEA 15 19:30EAN**  
**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN SARRERA, 5,50 EURO. GAZTELANIAZ**

Asteazkena, 18

**Agia eguna**

1978ko San Ferminetan gertatutakoaren kronika den OROITARRIA dokumentala ikusgai izango da. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **21:30ean. EUSKARAZ**

Igandea, 22

**Zinea**

"KIKI SUPERBRUJA 2" filma HAURRENTZAKO ZINEAREN barruan. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera 3,40 euro.**

Osteguna, 26

**Zinea**

OSTEGUN ZINEAREN baitan emango da CIRKUS COLUMBIA filma. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **21:30ean. GAZTELANIAZ. Sarrera 4,40 euro.**

Ostirala, 27

**Kontzertua**

Añogako BI "N" BI taldea gaztearen rock doinuak entzungo dira. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **23:00etan**

**Kontzertua**

HIRA eta Usurbilgo MENDEKU ITXUA taldeen emanaldia entzuteko aukera izango da. **ABEND KAFE-ANTZOKIAN, 00:00etan.**

Larunbata, 28

**Antzerkia**

HAURRENTZAKO ANTZERKIA den OGRO TXIKIA lana ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **18:00etan, EUSKARAZ. Sarrera on-line hartuta 3 euro, egunean bertan 3,40 euro.**

Igandea, 29

**Zinea**

"WINX CLUB, LA AVENTURA MÁGICA" marrazki bizidunetako filma HAURRENTZAKO ZINEA atalean. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera 3,40 euro.**

Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera 10:00 - 13:00  
 eta arratsaldetan 16:00 - 21:00  
 Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea  
 •Geltoki kalea 18 •Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

**Oharrak**

**Olinpiadak izango dira Inauterietan**

Inauterietako gaia Olinpiadak izango da. Atzo erabaki zen Manuel Lekuona kultur-etxean, Jaiek eta Parte-hartze sailak talde eta herritarekin antolatutako bileran.

Beraz, gure herrian bost hilabete lehenago izango dira Olinpiadak. Tenista, txirrindulari, futbol jokalar, igerilari... Olinpiadetako edozein arlotako izan daiteke moztorra. Anima zaitzete!!!!

**Ostadar SKT-ko zozketak**

Ostadar SKT-ak jakin arazten du, bazkideen artean zozketatu duen otarraren zenbakia 059 izan da eta Tomas Arrizabalagari egokitu zaiola.

Era berean, elkarteak urtero "El Niño"ko loteriatan batera

nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburua pasa zozketatzen du eta aurtengo zenbakia irabazlea 71.208 izan da.

Beraz, irabazleak Ostadarrereko bulegora deitu behar du saria eskuratzeko.

**Galdutako gauzak**

Ttakun kultur elkarteak kideek Santo Tomas azokaren ostean zapi bat eta Olentzoren ongi-etorri jaialdian amantala bat aurkitu zituzten. Jabeek aisia@ttakun.com helbidean edota 943 371 448 telefono zenbakian eska ditzakete galdutako gauzak.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4 943 366858  
 txintxarri@txintxarri.info



**Loidi-Barrengo aparkalekua egokituko dute**

Lasarte-Oriako Udaleko Zerbitzu sailak jakin arazi nahi du Loidi-Barrengo frontoiaren ondoan dagoen autoentzako parkinean lekua egokitzeko konponketak egingo direla urtarrilaren 13, 16 eta 17an.

Konponketa hauek egun batean baino gehiagotan egitea aurreikusten da, egun bakoitzean eremuaren zati bat konponduko da eta beste zonaldean aparkatzea posible izango da. Udalak jakin arazi duenez, egunez-egun udaltzainek jarriko dituzte beharrezko seinalea.

Larunbat eta igandean ez da konponketarik egingo, beraz, aparkatzea libre izango da eremu guztian zehar. •

**Eskutitza**

**Presoen Lagunak Taldea-ren eskertza**

Gabonetako apaingarri eta ospakizunen artean, Ibon Ospitalera eraman zutela jakin genuen. Eta egun bertsuetan Ina, Mitxel eta Txurdik 25 urte betetzen zituztela ezin ahaztu geunden aplikatu dieten *Parot dotriña* medio. Gainontzeok nola dauzkaten ikusita ekin genion Elkartasun hamabostaldieri.

Orain, urte berriari aurrea hartu ahala hauxe da egindakoari begira plazaratu nahi duguna:

Benetan gozagarria izan da jaso dugun erantzuna, parte hartzeko erakutsitako gogoia, jarritako ahalegina. Herriko artixtak: Bea eta Cesar Kontukantoi-lariak, Porrotx, Zigor Lanpre, bertsolariak, Ataramiñeko lagunak, Ixiar Rozas, Ramon Agirre, Joseba Tapia. Errezi-taldian parte hartu dutenen zerrenda, ez da hor amaitzen, luzea da: Xumelako kantariak, Ahuen, txalapartak, antzerkiak eta dantzak mugitu dituenak, soinu kamerari, irudiari eta musikari heldu dietenak, dekorazioan aritutakoak, pintxoak prestatzen, erdigunean eskulanak ikusgai jartzeko lokala utzi dugutenak.

Gure eskerrik beroena bidali nahi genizuke denoi. Urteari amaiera eta hasiera, herriki falta ditugun presoak gogoan eta euren eskubideen aldarrian egiten lagun izan zaituztegunak. Oholtzaren gainean, inguruan edota ikusle izan zaituztegun oro barne. Baita gatazka politikoren konponbidean pausok emateko garai honetan, presoen egoerak ezin duela gehiago horrela jarraitu aire-ratu dugunean, gertu sentitu zaitugun horri ere, Eskerrak.

*Maratoi baten partaideak gara, pausoz pauso joan beharko dugu aurrera. Ez dago bidezidorririk lehenago iristeko. Lan asko daukagu aurrean egiteko. Oraindik gehiagotan bete beharko dira kaleak bi estatuen agintariak kartzelako ateak, sikierra -euren legea aplikatuz-gaixo, Parot dotriñapean edo kondizionalean daudenak askatzeko. (Pello Eskisabel, Dlairvaux 2011-12)*

Hori horrela bada, kartzelan dauzkaten preso eta iheslarien eskubideen alde, gehiagotan egingo dugu topo.

Eskerrik asko.  
 Berriz elkar ikusi arte!

**Presoen Lagunak Taldea**

Naroa Arabiotorre Margolaria

# “Ez nuen pentsatzen sekula erakusketarik egingo nuenik”

“Zentzurik gabe” erakusketa izango du Jalgi kafe-antzokian hilabete amaiera arte

Naroa Arabiotorre 29 urteko hernaniarra da. Irunen Batxilergo artistikoa eta Urnietan diseinua eta ekoizpena ikasi zituen. Inprenta baten lan egin ostean, bere bizitzak ehun eta laurogei gradu buelta eman eta egun gozoki marka ospetsu batetako komertziala da. Margo erakusketa jarri du Jalgi Kafe-antzokian, “Zentzurik gabe” eta harekin bildu gara bere lanari buruz gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

## Marrazkirako zaletasuna nondik dator kizu?

Aita delinearatea zen. Eta txikitatik esaten zidan marrazten ikasi behar nuela. Olentzerotan margoak oparitzen hasi ziren eta gustua hartu nion.

Gero, urte asko egon nintzen margotu gabe, 6 urte edo izan ziren.

Eta duela bi urte berriro hasi nintzen. Hernanin ikastaro moduko batzuk daude, diruz lagunduak eta arratsalde egiten direnak. Bertan hasi nintzen eta gaur arte.

## Nola sortu zitzaizun erakusketa egiteko ideia?

Hernanin izan nuen erakusketara orain dela hilabete bat.

Ikastarora joan baino lehen taberna batera noa kafea hartzera. Bertan arratsalde batean lagun batekin nengoela tabernako neskek zerbait egiteko proposamena egin zidan. Eta nik baietza eman nuen.

Hau nire bigarren erakusketa da eta oso ilusionatua nago. Gainera, Jalgin oso polita geratu da.

## Eta nolako harrera izan zuen Hernanin?

Ona. Gabonetan jarri nuen. Gozoki otar bat zozketatu

genuen. Parte hartzen zuten pertsonak gustuko zuten koadroa aukeratu behar zuten eta haiei buruzko iritzia emateko aukera ere bazuten.

Oso pozik gaude jendeak erantzun zuelako. Nik ez nuen espero, baina 70 pertsonak erantzun zuten.

Gainera, pila bat ikasi dut. Zein aldetatik jo behar dudana erakutsi dit.

## Zein teknika erabiltzen dituzu?

Olio margoekin hasi nintzen lanean ikastarora hasterakoan. Beste teknika batzuk baino errazagoa da.

Gero probak egiten hasi nintzen spray-a, poliestireno itsatsia. Akrilikoetara pasa nintzen. Akuarelekin ere lan egin nuen. Baina ez zen ongi geratzen eta hori fondo bezala utzi eta olio antzekoa eman nion gainera.

Azkenean, akrilikoekin egiten dut lan.

## Zergatik akrilikoak?

Lehortzeko azkarra delako. Esku batetik bestera bi ordu edo ordu bete itxaron behar ditut.

Nire lanak formatu handikoak dira, ikastarora astean bitan noa, beraz, zerbait lehortzeko bost edo sei orduz itxaron behar badut denbora galtzen dut.



Naroa Arabiotorre Jalgi kafe-antzokian ikusgai jarri dituen lanetako batzuekin.

Etxean margotzen baldin badut ez daukat maisua ondoan eta ez dut ikasten eta denbora asko galtzen da.

Horregatik akrilikoekin egiten dut lan eta gainera, merkeagoak dira. Horrek ere badu bere garrantzia.

## Jalgiko erakusketan zer ikusi daiteke?

Akriliko lanak, olio-margoe-kin egindakoak eta sprayekin. Bat badago spray eta errotuladoreekin egina eta bestea errotuladoreekin bakarrik, permanenteekin.

## Abstraktua edo figuratiboa da zure lana?

Abstraktuak dira. Izenburua jarri behar niola esan zidatenean, “Zentzurik gabe” jarri nion.

Ez dakit zer esan nahi

duten, askotan marrazten hasten naizen unean ateratzen dena da.

Gehienetan koloreak du garrantzia. Kolore kontrasteak.

## Koloreak dute beraz, zure ustez, garrantzia...

Bai, horrela da. Serie handi bat egin nuen gorria, zuria beltza eta zilar-kolorearekin. Sei bat lan egin nituen eta gustukoena ditut. Kontraste handia dute eta zerbait esaten dute.

Besteak, berdean daude, alaitasuna ematen dutelako.

Azkenekoak, marroixka eta laranja koloreekin egin ditut, hauek paisai antzekoak direlako.

Baina normalean kolore biziak egiten dut lan eta beltzak garrantzia handia dauka.

Baina zerbait izan behar duzu buruan marrazten hasterakoan? Normalean forma bat egin eta hortik ateratzen da ideia.

Azkeneko koadroa egin arte, zirriborro asko egiten ditut, sei edo zazpi.

Hori diseinutik datorrela uste dut, bertan garrantzia handia ematen zioten zirriborroak egiteari, lehenengo ideia ez zela ona eta hori borobildu egin behar zela.

Lehenengo zirriborroak marrak dira, ez da ideia bat, ez da zuhaitz bat. Marrekin hasten naiz eta hortik zerbait lortzen dut. Askotan nik ere ez dakit zer diren.

## Zure lanak urte hauetan garrantzi izan al du?

Ez nintzen hasi zerbait lortu behar nuela pentsatzen.

Berez, pixka bat galduta nengoelako hasi nintzen eta lagunduko zidalakoan.

Ez nuen pentsatzen erakusketa bat egingo nuenik. Ezta pentsatu ere. Orain bi egin ditut eta zorutzen nago.

## Lanak erosteko aukerrik ba al dago?

Ez dut ezer jarri. Baina norbait interesatua baldin badago erosteko aukera dute. Nirekin jarri daitezke harremanetan nara-aaa@gmail.com helbidean edo 669 528 436 telefonora deituz.

Lanak eskuragarri izan behar direla esan dut beti. Lana daukate noski, eta material horiek guztiek dirua balio dute.

Baina nahiago dut pertsona baten etxean egotea, nire etxean bata bestearen atzean egotea baino. Ongi bilduta ez baldin badaude apurtu ere egin daitezke. •



**ZORIONAK TXURDI!**

